



2010eko martxoko ALBISTEAK:

Jaurlaritzak hiru eleko hizkuntza eredia 40 zentrotan probatuko du

Hezkuntza Sailak proposamen berria egin du hiru hizkuntzetan oinarritutako hezkuntzaren inguruan: euskara, gaztelania eta ingelesa. Kezka eta zalantza ugari sortu du erabaki horrek ikasleek eskuratuko duten euskararen gaitasunaren inguruan. Hona hemen horien inguruko informazio gehiago.

Noticias de Gipuzkoa: <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2010/03/07/sociedad/euskadi/quieren-el-trilinguismo-sin-haber-llegado-a-ser-bilinges>

Noticias de Gipuzkoa: <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2010/03/11/sociedad/el-euskera-necesita-un-tratamiento-especial-tambien-en-el-marco-trilinge>

Noticias de Gipuzkoa: <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2010/03/10/sociedad/euskadi/las-ikastolas-advierten-de-que-el-trilinguismo-que-aplican-seguira-favoreciendo-al-euskera>

Hitzapasa: telebistako Pasapalabra euskaraz online

Ordiziako Jakintza ikastolako irakasle Maite Goñi eta bere ikasleek Erresuma Batuko The Alphabet Game telebista lehiaketako euskarazko bertsioa jarri dute Interneten: Hitzapasa.

Berria: http://paperekoa.berria.info/plaza/2010-03-24/045/007/Hitzapasa_euskaraz_jokatu_eta_ikasi.htm

Sustatu: <http://feedproxy.google.com/~r/sustatu/~3/yA8ck2FUe4/1268636021>

Gurasoentzako aholku gehiago

Ume elebidunen gurasoei buruzko eskuliburua. Internetetik berreskuratutako eskuliburua dugu. Euskaraz eta gaztelaniaz dago eta hainbat aholku ematen ditu. Bertan hizkuntza minorizatu batean

gaur8: <http://www.gaur8.info/blogosfera/klik/78194>

Hizkuntza asertibitatea eta euskararen normalizazioa

Asertibitatea zer den eta hizkuntzarekin nola lotzen den azaltzeko hiru artikulu sorta argitaratu ditu azken asteetan Emuneko Juanjo Ruiz euskara teknikariak. Asertibitatearen kontzeptua, hizkuntza asertibitatearena eta horiek teoriatik praktikara eramanda enpresa bateko adibide praktikoa azaltzen digu.

Sustatu: <http://feedproxy.google.com/~r/sustatu/~3/dNgisVY1LuE/1269425688>

lantalán: <http://www.lantalán.com>

Euskaltzaindiak hiztegi bateratu bat kaleratu du

Euskaltzaindiak, hiztegi bateratu dokumentatu bat eta lexikoaren behatoki bat jarri du erabiltzaile eta ikertzaileen eskura. Interneten Euskaltzaindiak duen web orritik kontsultatu daiteke.

Noticias de Alava: <http://www.noticiasdealava.com/2010/03/24/ocio-y-cultura/cultura/euskaltzaindia-lanza-un-diccionario-unificado>

Euskaltzaindia: <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua>

BIKAIN ziurtagiria

Martxoaren 22an argitaratu da EHAAn, BIKAIN ziurtagiria eskuratzeko ebaluazioan parte hartzeko deialdia.

HPS: https://idok.emun.com/idoknet/dokumentuak/04Eskaerari_erantzun/EP_materiala/Kudeaketa/BIKAIN%20ziurtagiria/Kronograma-eusk-%202010.pdf?ver=1.0.821739064103

Zuk egin erdaraz, nik euskaraz egingo dizut

Elebitasun pasiboaren inguruko hausnarketa artikulua da honako hau: Euskaraz hitz egin ez baina ulertzen duenari egiten al diogu euskaldunok euskaraz? Berari mihia askatzen laguntzen al diogu? Hizkuntzen arteko urruntasunak nolako eragina dauka? Elebitasun pasiboa delakoak aukerak zabaltzen dizkie euskal hiztunei, eta erdaldunei euskarara hurbiltzeko parada eman. Honela ematen dio hasiera Onintza Iruretak Argian argitaratutako artikulua interesgarri honi.

Argia: <http://www.argia.com/argia-astekaria/2221/elebitasun-pasiboa/oso>

UEUko Informatika eta Teknologia Berrien inguruko ikastaroak hasteko prest

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) Informatika eta Teknologia Berriak ataleko bi ikastaro interesgarri aurkeztu ditu udaberriko eskaintzan eta oraindik izena emateko aukera dago.

Sustatu: http://feedproxy.google.com/~r/sustatu/~3/CZa0V-9_nbo/1269589962

Gara: <http://www.gara.net/paperezkoa/20100204/181021/es/Barnetegis-fin-semana-Aduna-una-novedosa-oferta-AEK-para-este-ano/>